Astigarragako Udala
Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

# EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2009IPLE0007
**Eguna:** 2009/09/17
**Ordua:** 12:00-12:30
**Tokia:** Areto nagusia

**Bertaratuak**

| | |
|---|---|
| - Bixente Arrizabalaga Bengoetxea | ALKARBIDE |
| - Juan Joxe Uranga Mendiburu | ALKARBIDE |
| - Imanol Lizarralde Marín | ALKARBIDE |
| - Eloy Bazan Bazan | ALKARBIDE |
| - Zorione Etxezarraga Ortuondo | EAJ/PNV |
| - Mª Jesús Arruabarrena Izagirre | EAJ/PNV |
| - Ramón Aranzasti Loyarte | EAJ/PNV |
| - Carlos de la Peña Hornés | EB-B |
| - Jose Angel Sanchez Gallardo | PSE-EE |
| - Jose Manuel Herzog de Bustos | PP |

**Bertaratu ez direnak**

| | |
|---|---|
| - David Franco Chavale | EB-B |

**Idazkaria**

- Xabin Olaizola Lasa

**Aztergaiak**

| | | |
|---|---|---|
| **Aurreko aktaren onarpena. 2009/07/23** | 1 | Aprobación acta anterior. 23/07/2009 |
| **Ramón Aranzasti Loyarte zinegotziaren kargu hartzea.** | 2 | Toma de posesión del concejal Ramón Aranzasti Loyarte. |
| **Plan Orokorraren Testu Bateratuaren akats zuzenketa egiteko epe eskaera.** | 3 | Solicitud a Diputación de concesión de plazo para subsanación de deficiencias del Texto Refundido del Plan General |
| **Prezio itundtako etxebizitza libreen oinarrien aldaketa.** | 4 | Modificación bases viviendas libres de precio concertado. |
| **2008ko Kontu Orokorra. Behin betiko onarpena.** | 5 | Cuenta General 2008. Aprobación definitiva |
| **Tolare Erbitegi obra. Baldintza plegu administratibo eta prioektuaren onarpena** | 6 | Obra Tolare Erbitegi. Aprobación pliego de cláusulas administrativas y proyecto. |
| **Ordenantza Fiskalak 2010** | 7 | Ordenanzas Fiscales 2010 |

Astigarragako Udala
Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

## Esan-eginak eta erabakiak

| | |
|---|---|
| **1 Aurreko aktaren onarpena. 2009/07/23** | **1 Aprobación acta anterior. 23/07/2009** |
| El akta se ha aprobado por unanimidad | Se aprueba el acta por unanimidad. |
| **2 Ramón Aranzasti Loyarte zinegotziaren kargu hartzea.** | **2 Toma de posesión del concejal Ramón Aranzasti Loyarte.** |
| Ramón Aranzasti Loyarte zinegotziak zin egin du eta zinegotzi kargua bere gain hartu du, une honetatik aurrera Astigarragako Udaleko eskubide osoko zinegotzi moduan harituko delarik. | El concejal Ramón Aranzasti Loyarte realizado el juramento y toma de posesión de su cargo como concejal del Ayuntamiento de Astigarraga, operando desde este momento como miembro de pleno derecho de la Corporación Municipal de Astigarraga. |
| **3 Plan Orokorraren Testu Bateratuaren akats zuzenketa egiteko epe eskaera.** | **3 Solicitud a Diputación de concesión de plazo para subsanación de deficiencias del Texto Refundido del Plan General** |
| Alkateak Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro batzordearen irizpenaren berri eman du eta ALKARBIDE(4), EAJ(3), PP, ren aldeko botoekin, PSE-EEren abstentzioarekin eta EB-Bren aurkako botoarekin honakoa adostu du osoko bilkurak: | El Alcalde ha dado cuenta del dictamen de la comisión de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente. Tras un debate el pleno de la corporación con los votos favorables de ALKARBIDE(4), EAJ(3), PP, la abstención de PSE-EE, y el voto en contra de EB-B ha acordado: |
| Lehenengoa.- Gipuzkoako Foru Aldundian eskumena duen organoari hilabete bateko epea eskatzea Udal Osoko Bilkurak 2008ko abenduaren 15ean onartutako Astigarragako Hiri-antolamendurako Plan orokorreko Testu Bateratuan ikusitako akatsak konpontzeko.<br><br>Bigarrena.- Hartutako erabaki honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde-antolakuntza Sailari jakinaraztea. | ***Primero.-*** Solicitar al órgano competente de la Diputación Foral de Gipuzkoa que acuerde conceder el plazo de un mes para que se subsanen las deficiencias detectadas en el Texto refundido del Plan General de Ordenación Urbana de Astigarraga aprobado por acuerdo plenario de fecha 15 de diciembre de 2008.<br><br>***Segundo.-*** Remitir el presente acuerdo al Departamento de Movilidad y de Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa. |

| | |
|---|---|
| Botoaren azalpenean:<br>1.- Jose Manuel Herzog de Bustos<br>PP<br>Adierazi duenez, gaia atera behar delako eman dute aldeko botoa. Edonola ere, Aldundiak haserrea adierazi du, eta Planak ez dirudi Plan Nagusi bat, Plan Partzial bat baizik.<br><br>2.- - Jose Angel Sanchez Gallardo<br>PSE-EE<br>Adierazi duenez, Plan Nagusia kutsatuta dago hasieratik, eta Aldundiak lotsatuta utzi du idazlari taldea. Dena presaka egin da Lurzoruaren Lege berria ez aplikatzeko, eta udal-teknikariek ez dute parte hartu Aldundiarekin egindako bileretan.<br><br>3.- - Carlos de la Peña Hornés<br>EB-B<br>Hirigintza Batzordean adierazi zuena esan du berriz, eta Plan Nagusiaren kostua jakinaraz dakion eskatu du.<br><br>4.- Bixente Arrizabalaga Bengoetxea: alkate gisa, erantsitako zuzenketak informazioa eman behar duten organoen txostenetan egindako ñabardurekin bat datozela adierazi du. Gainera, zuzenketak garrantzi txikikotzat hartu direla eta Plan Nagusiaren egitura-elementuetan eraginik ez dutela adierazi die Aldundiak berak. Gaineratu duenez, zorionak eman nahi dizkio idazlari taldeari, eta dokumentua idatzi zen garaian indarrean zegoen legeriari jarraiki idatzi dela gogorarazi du. Amaitzeko, Aldundiarekin egindako bileretara bere ustez egokiak ziren teknikariekin joan zela adierazi du. | En la explicación de voto:<br>1º.- Jose Manuel Herzog de Bustos<br>PP<br>Señala que han votado a favor dado que hay que sacar este tema, pero Diputación ha dado un tirón de orejas, y en su opinión más que un Plan General parece un Plan Parcial.<br><br>2º.- - Jose Angel Sanchez Gallardo<br>PSE-EE<br>Indica que está viciado de origen el Plan General y que la Diputación les ha sacado los colores al equipo redactor. Se ha hecho todo deprisa para no aplicar la nueva ley del suelo y en las reuniones con Diputación no han participado los técnicos municipales.<br><br>3º.- - Carlos de la Peña Hornés<br>EB-B<br>Se reitera en lo que manifestó en la Comisión de Urbanismo y solicita que se le facilite el costo que ha tenido este Plan General.<br><br>4º.- Bixente Arrizabalaga Bengoetxe: en su calidad de alcalde indica que las correcciones incorporadas se corresponden con las matizaciones realizadas por los informes de los órganos que tienen que informar, y la propia Diputación les ha manifestado que las correcciones están calificadas como poco importantes y que no afecta en nada a los elementos estructurales del Plan General. Señala que quiere dar la enhorabuena al equipo redactor y recuerda que la redacción de este documento se ha realizado conforme a la legislación vigente en el momento de su redacción. A las reuniones con Diputación fui acompañado del personal técnico que entendí pertinente. |

| | |
|---|---|
| | |
| **4 Prezio itundtako etxebizitza libreen oinarrien aldaketa.**<br>Puntu honetan Carlos de la Peñak eta José Manuel Herzogek ez dute parte hartu, interesatuak direlako. | **4 Modificación bases viviendas libres de precio concertado.**<br>En este punto se ausentan Carlos de la Peña y José Manuel Herzog por ser parte interesada. |
| Alkateak Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro batzordearen irizpenaren berri eman du eta ALKARBIDE(4), EAJ(3), PSE-EEren aldeko botoekin honakoa adostu du osoko bilkurak: | El Alcalde ha dado cuenta del dictamen de la comisión de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente. Tras un debate el pleno de la corporación con los votos favorables de ALKARBIDE(4), EAJ(3), PSE-EE ha acordado: |
| Kontuan harturik materialki etxebizitzen onuradun izango zirenen zerrenda osatzerako garaian ezinbesteko zela oinarrien interpretazioaren zehaztapen bat egitea, honako zehaztapen argitzaileak onartzen dira, GAOn, 2009/07/22an argitaratutako prezio itundutako etxebizitza libreak esleitzeko oinarriei buruzko testuan barneratu daitezen. | En vista de que a la hora de realizar materialmente la labor de concreción de las bases para la obtención de la lista de beneficiarios de vivienda era necesario realizar una concreción de la interpretación de las bases para la adjudicación de viviendas libres de precio concertado publicado en el BOG con fecha 22 de julio de 2009, se procede a aprobar las siguientes concreciones aclarativas para que sean incorporadas al texto. |
| - Etxebizitza kopurua aldatu, eta A taldeko 45 ziren tokian 53 aipatzea eta era berean, B taldeko etxebizitzetan 44 dioen tokian 52 esan dezala. | - Modificar el número de viviendas del grupo A de 45 a 53 y modificar el nº de viviendas del grupo B de 44 a 52 viviendas. |
| - Bosgarren lehentasun irizpide berri bat ezarri, Buruntzaldean lan egiten dutenak osatzen dutena. Bezaz, aurreko bostgarren irizpidea seigarren taldera pasako da. | - Incluir un nuevo criterio de prioridad que sería el número quinto en el que se recogen las personas que demuestren trabajar en la comarca de Buruntzaldea. Por tanto el anterior quinto criterio de prioridad pasaría a ser el sexto. |
| - Azken bi urteetan etxerik izan ez dutenak lehenetasuna izango dute etxebizitza izan dutenen aurretik, talde honen barruan , etxebizitza ez dutenen lehentasun irizpide berak ezarriaz. Beraz VI. Atalaren lehen parraforen ondoren honakoa jaso beharko litzateke: " Oinarrien V.B atalean jasotzen denaren arabera etxebizitzarik ez dutenek lehentasuna izango dute . Bi talde hauek | - Incluir a los que durante los dos últimos años disponen de vivienda después de las solicitudes de los que no dispongan de vivienda, aplicando los mismos criterios de prioridad establecidos para los que **no tienen vivienda**. Por lo tanto Incluir el siguiente texto en el apartado VI tras el párrafo primero: " Los solicitantes que no posean vivienda según lo recogido en el |

| | |
|---|---|
| ondorengo paragrafoetan jasotzen diren lehentasun irizpideekin antolatuko dira, bata bestearen atzetik". | apartado V. B de estas bases tendrán preferencia sobre los que posean vivienda. Estos dos bloques se ordenarán conforme a los criterios de prioridad que se definen en los párrafos siguientes:" |
| - VIII.2 atala aldatu behin behineko zerrendei buruzkoa honakoa jasoaz: " onartuen behin behineko zerrenda argitaratuko da eta bertan zehaztu da, alde batetik onuradunen behin behineko zerrendan", hau da 105, " eta ordezko onuradunen zerrenda dagokion lehentasun zerrendarekin. Era berean onartuak izan ez direnen zerrenda jasoko da". | - Modificar el apartado VIII.2 de listas provisionales reseñando que "se publicará la lista provisional de admitidos en la que se detallará la **lista de los beneficiarios de vivienda provisionales", esto es 105**; "y la lista de beneficiarios de reserva con el correspondiente orden de prioridad. Igualmente se recogerá la lista provisional de excluidos". |
| - VIII.2 atalaren aldaketa proposatzen da, bere azken aipamenean, non 1. puntuan " A multzoko etxebizitzak eskuratu nahi dituztenei zuzendua" dionenean, "A eta B multzoko etxebizitzak eskuratu nahi dituztenei zuzendua" esan behar du. | -Se propone una modificación del apartado VIII.2 en su ultima reseña donde en el punto 1ª donde dice " para quienes opten a las viviendas del **grupo A",** debe decir "para quienes opten a las viviendas del **grupo A y B"** |
| -VIII.3 atalean honako aipamena jaso: " Etxebizitza egokitu zaionen batek uko egingo balu, ordezkoen zerrenda erabiliko litzateke, behin betiko ordezko onuradunen jasotako lehentasun ordena errespetatuz". | -Incluir en el apartado VIII.3 la siguiente reseña: "En caso de que un adjudicatario de vivienda **renuncie** a la misma se utilizará la lista de reserva respetando el orden de prioridad establecido en la lista definitiva de beneficiarios de reserva. |
| **5 2008ko Kontu Orokorra. Behin betiko onarpena.** | **5 Cuenta General 2008. Aprobación definitiva** |
| Carlos de la Peña zinegotzia eta José Manuel Herzog zinegotzia itzultzen dira. | Se incorporan los concejales Carlos de la Peña y José Manuel Herzog. |
| Alkateak Ogasun, Ondare, Merkataritza eta Berrikuntza, kasu honetarako (Kontuen Batzorde Berezia) batzordearen irizpena aurkeztu du hain zuzen 2008ko Kontu Orokorra onartzeko. | El Alcalde presenta el dictamen de la comisión de Hacienda, Patrimonio, Comercio e Innovación, a estos efectos Comisión Especial de Cuentas, proponiendo la aprobación de la Cuenta General 2008. |
| Gaia aztertu ondoren udalbatzak ALKARBIDE(4), EAJ(3), PSE-EE eta PPren aldeko botoekin, eta EB-Ben aurkako botoarekin honakoa onartu du: | Tras un debate la Corporación Municipal con los votos favorables de ALKARBIDE(4), EAJ(3), PSE-EE y PP y el voto en contra de EB-B han aprobado: |

| | |
|---|---|
| Lehena: 2008ko Kontu Orokorra behin betirako onartzea. | Primero: Proceder a la aprobación definitiva de la Cuenta General 2008. |
| Bigarrena: Herri Kontuen Euskal Epaitegiari 2008ko Kontu Orokorraren kopia bat igortzea. | Segunda: Remitir una copia de la Cuenta General 2008 al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas. |
| Carlos de la Peñak adierazi du,2008ko Kontu Orokorra teknikoki ondo egina dagoela, baina politikoki azaldu behar du ez dagoela ados aurrekontuaren exekuzioa inbertsioen atalean oso baxua izan delako. | El concejal Carlos de la Peña ha reseñado que aunque técnicamente está correctamente realizada la Cuenta General, a nivel político no la ha aprobado dado que la ejecución del presupuesto en el capitulo de inversiones ha sido muy baja. |
| **6 Tolare Erbitegi obra. Baldintza plegu administratibo eta prioektuaren onarpena** | **6 Obra Tolare Erbitegi. Aprobación pliego de cláusulas administrativas y proyecto.** |
| Alkateak Ogasun, Ondare, Merkataritza eta Berrikuntza batzordearen irizpenaren berri eman du eta ALKARBIDE(4), EAJ(3), PSE-EE eta PP ren aldeko botoekin eta EB-Ben abstentzioarekin honakoa adostu du osoko bilkurak: | El Alcalde ha dado cuenta del dictamen de la comisión de Hacienda, Patrimonio, Comercio e Innovación. Tras un debate la Corporación Municipal con los votos favorables de ALKARBIDE(4), EAJ(3), PSE-EE y PP, y la abstención de EB-B ha acordado: |
| Lehena.- Tolare Erbitegi obraren baldintza plegu administratiboa onartzea. | Primero.- Aprobar el pliego de cláusulas administrativas particulares del contrato de obra para la construcción del Tolare Erbitegi. |
| Bigarrena.- Lehiaketa abian jartzea prozedura ireki eta premiazkoaren bidez. | Segundo.- Proceder a la convocatoria de la licitación mediante procedimiento abierto y urgente. |
| Carlos de la Peñak zinegotziak adierazi du oro har ados dagoela proiektuarekin baina Fundazioarekin dauden arazoak konpondu behar direla. | El concejal Carlos de la Peña indica que está en esencia de acuerdo con el proyecto , pero que tiene conocimiento que hay problemas con la Fundación. |
| Alkateak erantzun dio Fundazioarekin ez daudela arazoak; Fundazioko kidean izendatu dira eta eman diren pauso guztiak zuzenak izan direla eta gaia kudeatzen ari da Patronatuaren baimena eskuratzeko. | Interviene el Alcalde señalando que no existen problemas con la Fundación, que la misma ha nombrado a sus miembros y que todos los pasos que se han dado han sido correctos y que se están dando pasos para obtener el acuerdo del Patronato. |

| 7 Ordenantza Fiskalak 2010 | 7 Ordenanzas Fiscales 2010 |
|---|---|
| Alkateak Ogasun, Ondare, Merkataritza eta Berrikuntza batzordearen irizpenaren berri eman du. Adierazi du egoera ekonomikoa kontuan zuzena dela zergak ez igotzea eta lantzea gastuaren murrizketa. | El Alcalde ha dado cuenta del dictamen de la comisión de Hacienda, Patrimonio, Comercio e Innovación. Señala que en esta coyuntura de crisis se ha optado por no aumentar los impuestos y trabajar en la línea de reducción del gasto. |
| Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez honakoa adostu du osoko bilkurak: | Tras un debate la Corporación Municipal, por unanimidad, ha acordado: |
| Lehena: 2010ko ordenantza fiskalei behin behineko onarpena ematea. | Primero: Proceder a la aprobación inicial del texto refundido de las ordenanzas fiscales del año 2010. |
| Bigarrena: Akordio hau jende aurrean jartzea 30 eguneko epean, dagozkion alegazioak aurkeztu daitezen. Halakorik izango ez balitz, behin behineko akordio hau behin betiko bihurtuko da. | Segunda: Someter a información pública durante un período de 30 días hábiles para la presentación de las alegaciones que se estimen oportunas. En el caso de que no hubieran devengará en definitivo este acuerdo de aprobación inicial. |

Bilera amaitutzat eman dugu 12:30etan eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarragan, 2009ko irailaren 17an

**Xabin Olaizola Lasa**
**Idazkari Kontu-hartzailea**

Astigarragako Udala